

JOXE PATINETEAK

Endika, Danel, Unax eta Alex gara proiektu hau burutuko dugunak. Zizurkil, Villabona eta Asteasuko 4 gazte gara 17 urtekoak eta gure proiektuaren asmoa tolosaldeko patinete elektriko eskasia asetzea da. Guk sortu nahi dugun enpresa hasiera batean Tolosan jarriko dugu eta "Joxe patineteak" izena izango du, aitona Joxeren omenean. Ideia hau burutzeko, tolosaldean inkesta bat egin genuen adin desberdinetako premiak zein diren jakiteko. Ondorioz, gehiengoak mobilitate arazoa ikusten zituztenez, hau da herrian zehar ibiltzeko ibilgai edo garraio gutxi, patinete enpresa bat eraikitzea erabaki dugu. Patineteak guztiz elektrikoak dira eta herritarrak asetzeaz gain, CO2 kontsumo jaistea da ere gure asmoa.

